

IKERTZAILE DOKTOREAK UPV/EHU_n KONTRATATZEKO DEIALDIA (2024)

EMANDAKO ETA UKATUTAKO ESKABIDEEN BEHIN BETIKO ZERRENDAREN AKATS MATERIALAREN ZUZENKETA

2025/02/21ean argitaratu zen Ikerketaren arloko errektoreordetzako web atarian emandako eta ukatutako eskaeren behin-betiko ebazpena.

Akats materiala ikusi da Emandako eta ukatutako eskaeren behin betiko ebazpena I. Eranskinean, emandako puntuazioen datuak eta, hala badagokio, baztertzeko arrazoiak gurutatu direlako.

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 109.2 artikulua arabera "Administrazio publikoek edozein unetan zuzendu ditzakete, ofizioz edo interesdunek eskaturik, beren egintzetako oker materialak, egitezkoak edo aritmetikoak".

Horren arabera, 2025eko otsailaren 21eko, Emandako eta ukatutako eskaeren behin betiko ebazpena I. eranskina ordeztu da, akats materialen zuzenketa honi erantsen dionagatik, eta behin-betiko ebazpenaren aurka aurkaratzeko epe berria ematen duena:

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarritik gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua administrazio isiltasuna medio ezetsi dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsitzat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legea, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeko 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazioarekiko auzien epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen argitaratu eta biharamunetik hasita (administrazioarekiko auzietako jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 legearen 8.3 eta 46. artikulua).

Errekurtsuak aurkezteko lekua eta modua deialdiaren 10.1. oinarrian adierazitako lekuetan aurkeztu beharko dira.

Leioan, sinadura elektronikoaren egunean.

Juan Ignacio Umerez Urrezola
UPV/EHUko Ikerketaren Errektoreordea